



**SORALUZeko UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

Cod.Expediente:2026DEKR0126

**ALKATETZAREN DEKRETUA**

Osasuna Gizarte Ongizatea, eta Inmigrazio saileko arduradunak adierazi duenez, Sorluzeko "SORALUZE ELKAR ZAINZAN: ZAINKETAKO KOMUNITATE-EKOSISTEMA" proiektua aurrera eramateko Teknikari bat izendatzea eskatzen du, zeregin horiek ezin izango bailirateke egin, gaur egun sailean dauden baliabide pertsonalekin bakarrik. Zehazki, Zaintzako Komunitate Ekosistemaren Dinamizatzaile bat izendatzea eskatu du, programa bidez, urtebeterako.

Kontuan izanda, gaur egun, Sorluzeko Udalak ez duela Zaintzako Komunitate Ekosistemaren teknikarien lan poltsarik eta planaren indarraldia urtekoa izango dela, horregatik, behar beharrezko gertatzen da deialdia egitea, dagokion hautaketa prozesua egin eta lan poltsa bat osatzeko.

Beraz, eta kontuan hartuta honako hauek:

Bitarteko langileen hautaketa, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren 10. artikulua eta 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena, 77. artikulua arabera, prozedura arinen bidez egin behar da eta, bestalde, 896/1991 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak xedatzen du lehiaketa publikoa egin behar dela eta, betiere, errespetatu egin behar direla merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak; horrek berekin dakar lan poltsak egiteko aukera eta, horrela egin ezean, ekainaren 6ko APU/1461/2002 Aginduaren ezarritako prozeduraren arabera egin behar da (Langileak Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzera eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzea eta lanbide-igoera erregulatzen duen Erregelamendu Orokorren 27.3 artikularekin lotuta), zeina toki administrazioan aplikazio osagarrikoa baita gaur egun aplikatzekoak direnetan.

Hori guztia kontutan hartuta eta dokumentazioa aztertuta eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, ondorengo **EBAZTEN DUT**:

- **LEHENA:** "Zaintzako Komunitate Ekosistemaren Dinamizatzaile" teknikaria lanpostu bat betetzeko hautaketa prozesurako deialdia egitea.
- **BIGARRENA:** Aipatu hautaketa prozesua aginduko duten oinarri-arauak onartzea, (eranskinean jasok).

Sorluzen, 2026ko apirilaren 22an.

Alkateak

Idazkariak

Unai Larreategi Azurmendi

Bittor Agirreurreta Murgia

